



**EUSKAL POESIAREN
HASTAPENAK**

4.-

ERRENAZIMENTUA

SARRERA

EUSKAL POESIAREN HASTAPENAK bideo-seriea euskal literaturaren historiaren atal garrantzitsu baten berri emateko asmoz egin dugu. Bideo-seriean ahozko euskal literaturarekin hasi eta, XVIII. mendeko Larramendi eta jarraitzaileen garaia bitartean, zazpi kapitulutan, Europan izan ziren korronte nagusiak hobekien ordezkatzan dituzten autoreak kokatu ditugu. Eurak izan dira, neurri handi batean, gaurko euskal literatoen ereduak.

Garaia eta garaiko literatura aztertzeaz gain, bideo-serieak euskal literaturaren alorrean lehen urratsak eman zituztenen berri eman nahi du. Bai garaian garaiko egoera soziopolitikoak aurkeztuz, bai inguruko herri eta nazioetako sortzaileen eragina aztertuz.

Horregatik guztiagatik, uste dugu ezinbestekoa dela batxilergoan diharduten ikasleei Euskal Herrian Erdi Arotik aurrera izan diren lehen literatur ekintzak eta, inguruetako hizkuntzen indarra itzela zen garaian, euskara hizkuntza literario bilakatzen lagundu zutenen izaera erakustea.

Bideo hauek euskaraz komunikatzeko gai diren ikasleentzat eginak daude, D ereduan ikasten ari diren Batxilergokoentzat, alegia.

EUSKAL POESIAREN HASTAPENAK bideo-seriea hogeitun minutuko iraupena duten zazpi bideoz osatua dago.

Jakintzagaiaren helburu nagusia testuen ulermenari eta ekoizpenari loturik dauden komunikazio-trebetasunak garatzea da.

Etaparen beharrianak kontuan izanik, hizkuntzaren erabilera formalenei buruzko literatura, kultura eta zientzietako diskurtsoak izango ditu aztergai nagusiki jakintzagai honek.

Literaturak hausnartzeko bidea emango die ikasleei, gizakiak bere bizipenak eta pentsamenduak besteengana helarazteko erabili izan dituen testu-mota eta komunikaziorako estrategiei buruz.

Hezkuntza literarioa lortu behar da, irakurle gaituak prestatzea eta irakurtzeko zaletasuna piztea helburutzat harturik. Izan ere, literatura kultur aberastasuna ez eze, giza portaeraren eta norberaren buruaren ezagutzan sakontzeko bide egokia da.

Testuen aukeraketa egiterakoan, Euskal Literaturako idazle, jenero, eta garairik esanguratsuenak hautatu beharko dira, ahal den heinean gazteen mundu-ikuskerara eta testuinguruarekin lotuz.

Garrantzitsua da ikasleek literatur forma eta genero nagusiak ezagutzea, betiere testuak sortu diren testuinguru historiko eta kulturalera hurbilduz eta generoek historian zehar izan dituzten aldaketak kontuan hartuz.

EUSKAL POESIAREN HASTAPENAK

Seriearen asmoa ikaslea hausnartzen jartzea da.

Horretarako, poesiaz baliatzen gara.

Poemen gaineko azalpenak, ikasleak ez daitezen beldurtu, modu arin eta ulerterrazean ematen ahalegindu gara.

Serieak, poesia lagun, gure historiaren zati baten berri eman nahi du.

Izan ere, gizartearen gorabeherak pertsonengan duten eragina, ederki asko islatu ohi dute artistek euren obretan.

Poesigintzaren gainean hausnarketa egiteak, pertsonen historia ezagutzeko abagune aparta eskain diezaguke.

HELBURU OROKORRAK

Literatur lanak modu kritikoan interpretatzea eta balioestea, beren izaera artistikoa gauzatzen duten elementuak identifikatuz, hizkuntzaren erabilpen sortzaileari erreparatuz, kultur tradizioarekin lotuz eta sortzeko ezaugarri sozialak ezagutzuz.

Euskal literatura ezagutzea, betiere kultura europar eta unibertsalean kokaturik, eta azterketarako bibliografi iturriak aurkituz eta era kritikoan erabiliz.

Literatur lanen aurrean jarrera zabala erakustea, lanotan norbanakoen eta gizartearen islaz konturatuz eta kanpoko mundua irudikatzeko ahalmenaz ohartuz.

Irakurketaz gozatzea, eta irakurketa aisialdirako gozamenezko ekintzat hartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Literatur lanen edukia interpretatzea, generoen egiturarekin eta erabilitako prozedura erretorikoekin erkatuz.

--Literatur genero jakin batean kokaturiko lanak interpretatzeko ahalmena balioetsi nahi da, betiere genero horri dagozkion prozedura erretorikoak eta literatur tradizioa abiapuntutzat harturik. Horretarako, testu literarioaren iruzkina landu eta literatur lan osoak edota literatur lanen zentzu orokorra apurtzen ez duten atal luze samarrak irakurri beharko dira.

Euskal Literaturako lan esanguratsuak interpretatzea, lanak sortu diren garaia, egilea eta dagokien ingurune sozial, historiko eta estetikoak erlazionatuz eta kanpoko literaturekiko loturak eginez.

--Irizpide honen helburua, ikasleek literatur fenomeno ingurune historiko jakin batean sortzen den gertakari kultural gisa ulertzeko duten ahalmena balioestea da. Horretarako, literaturaren garai esanguratsuen ezaugarriei buruzko ezagupenak erabiltzen ikasi, informazio-iturri egokiak aurkitu eta literatur lanen interpretazioan lorturiko informazioari iritzi kritikoa aplikatu ere.

Literatur lanen eduki ideologikoa ezagutzea eta lan hauek gaurko gizartearekiko duten esanahiaz iritzi kritikoa osatzea.

--Irizpide honen bitartez, ikasleak literatur lanen pean dagokeen ideologia ezagutzeko duen ahalmena balioetsi nahi da. Horretarako, hiru puntu hauei erantzun dio:

- egilearen lanarekiko asmoari;
- lana kokatzen den testuinguru historiko eta sozialari;
- gaur egun lanak sorarazten dituen interpretazioei.

EDUKIAK

3. atala. Literatur diskurtsoa

A) Kontzeptuzko edukiak:

- Gertakari komunikatibo eta estetikoa. Kultura eta kultur gertakaria.
- Ahozko literaturaren ezaugarriak bai Euskal gizartean, bai Europan eta munduan.
- XV. eta XVIII. mendeen bitarteko korrante litararioen isla orduko euskal idazleen lanetan.
- Euskal literatura idatziaren historia: XV.-XVIII. mendeetako datu nagusiak

B) Prozedurazko edukiak:

- Olerki esanguratsu zenbaiten irakurketa, azterketa eta interpretazioa.
- Literaturaren muga dauden zenbait testuren irakurketa, azterketa eta interpretazioa.
- Obra literarioen testuinguru historiko eta soziala ulertzeko tresnen aplikazioa.
- Norberak sortutako testu poetikoen idazketa eta irakurketa.

C) Jarrerazko edukiak:

- Literatura gertakari komunikatibo eta estetiko gisa balioestea, baita norbanakoaren islapen eta errealtate historiko eta sozialaren adierazpen bezala ere.
- Literatur testuen irakurketa ekintza atsegin eta aberastasun-iturri pertsonal eta kultural gisa balioestea.
- Literatur lanen ekoizpen, hedapen eta hartzea baldintzatzen dituzten alderdi soziologikoak ezagutu eta modu kritikoa balioestea.
- Literatur lanen eduki ideologikoa ezagutzea.

5. Atala hizkuntza eta hizkuntzak

A) Kontzeptuzko edukiak

- Euskararen historia. Euskararen hedapena historian zehar.

B) Prozedurazko edukiak

- Euskararen ibilbidea ahozkotasetatik neoklasizismora. Sarako eskola, Larramendiren eskola.

C) Jarrerazko edukiak

- Euskararen batasunaren aldeko jarrera positiboa, tokian tokiko euskalkiak ere bultzatuz.

EUSKAL POESIAREN HASTAPENAK

Nola erabili

Seriea Euskal Literatura gaia ematen duenak XV. - XVIII. mendeko literaturaz mintzatzerakoan erabiltzea proposatzen da. Ondo legoke, bideoa martxan jarri aurretik, garai hori, gainera bada ere, klasean aipatua izatea.

Lehenengo bi kapituluetan ez daukagu autore protagonistarik. Ahozko literaturaren munduan sakontzen dute.

—Lehenengoan, **dekorazio-olerkiak eta koplak zaharrak** dira mintzagai.

—Bigarrenean, Erdi Aroko **euskal baladak**.

—Hirugarrenean, Zuberoako **pastorala**.

Hirugarren kapitulua, pastoralari eskaintzen zaio. Ahozkotetasunaren eta idazketaren artean kokatu ohi dira pastoralak.

—Errenazimendua **Bernart Etxepareri**.

—Barrokoa **Pedro Agerre Axularri** eta **Joanes Etxeberri** Ziburukoari.

—Klasizismoa **Oihenarti**.

—Neoklasizismoa **Xabier Maria Muniberi** eta **Pedro Ignazio Barrutiari**.

Beste lau kapituluetan idazketa da nagusi, eta bakoitza idazle bati edo biri eskainiak daude.

Zazpi bideoetan, haien poemak irakurketaz gain, bakoitzari dagokion garaiko arte korrontearen berri ematen da.

Errezitalariek euskara batuan eginiko bertsoak irakurriko dituzte, ikasleak ez dezan izan aparteko arazorik lehen entzunaldian ulertzeko.

Jatorrizko bertsoak gida didaktikoa emango dira, dagozkien azalpenekin. Horrela ikasleek bi bertsoak alderatu ahal izango dituzte, eta irakasleak egoki baderitzo, euskalkia landu ahal izango du.

Poemak lantzeko proposamenak

- Poemaren **gaia identifikatzea**.

- **Poemaren laburpentxo bat** egin dezatela eskatzea (ahoz zein idatziz).

- Entzundako poemen kopiak banatzea ondoko ariketak egiteko:

-lexiko landu

-baliabide literarioak identifikatu eta aztertu

-**Testu poetikoen irakurketa espresiboa**: errezitalaia nola irakurtzen dituen ohartzeko eskatuko diegu ikasleei; ondoren, poesia ahots gora irakurtzeko esango diegu. Horretarako, beldurrak uxatzea ezinbestekoa da, girotze-lana egin behar da, beraz. Adituek eta, batez ere, poetek olerkiak entzuteko direla diote, bakarrik gaudenean ere, ahots gora irakurri beharrekoak direla. Horixe esango diegu ikasleei.

-**Literatur lantegia**: ikasturtean zehar egin daitekeen ekintza da hauxe. Neskak eta mutilak hamabi eta hemezortzi urte bitarteko epe honetan hasten dira poemaren bat edo beste idazten. Horixe izango da irakaslearen erronka, **poesiazale direnak identifikatu eta haiei bultzadatxo bat ematea**. Bideo-serieko poemen gainean bertsio pertsonalak egiten has daitezke ikasleak; geroago, beren poema propioak idazteko.

Oso garrantzitsua da ikaskideen aurrean irakurtzera ausartzea.

Ondoren, gainerako ikasleek entzundakoari buruzko euren iritzia emango dute.

Liburuak

Orokorrak

Sarasola, Ibon: *Euskal literaturaren historia*, Lur argitaletxea, Donostia, 1970

Lekuona, Juan Mari: *Ahozko Euskal Literatura*, Erein, Donostia, 1982

Diaz Plaja, D.: *Literatura vasca*, Madril, 1972

Onaindia, Santi: *Euskal literatura*, Etor, Bilbo, 1972-1977

Kortazar, Jon: *Euskal literaturaren historia txikia*, Erein, Donostia, 1997

ERRENAZIMENTUA

Altuna, P.: *Linguae Vasconum Primitiae*, (edizio kritikoa), Bilbo, 1980

Altuna, P.: *Etxepareren hiztegia*, Bilbo, 1979

Arkotxa, A.: *Etxeparekoaren maitasunezko koplata*, I. Sancho el Sabio, 1996

www.vc.ehu.es/gordailua

4.) ERRENAZIMENTUA

Errenazimentua, Italian XIV. mendean hasi eta gero, Europa guztian indar hartu zuen kultur mugimendua da. XVI. mendean Europa guztian zabaldurik zegoen. Kultura klasikoa, antzinako erromatar eta greziarrena, hartzen ditu iturburutzat. Kultur zabalkunde handia nabari da. Inprimategiak, zabalkunde honetan, asko lagundu zuen.

Euskal Herrian, ahaide nagusien giroan sorturiko poesia epikoa ezkutatzera doa; bestalde Europan erlijio aldetik krisi gogorra sortzen da: protestanteen Erreforma eta, ondorioz, katolikoek Kontra Erreforma. Honek ere euskal literaturan eragina izan zuen.

Lehen bi euskal idazleak Ipar Euskal Herrikoak ditugu: Bernart Etxepare katolikoa, Nafarroa Beherekoa, eta Joanes Leizarraga protestantea, Lapurdikoa.

Zabala, Enrike: Euskal literatura, alfabetatzeko

Gizartea:

Erdi Aroaren bukaerarekin iritsi zen Ahaide Nagusien bukaera Euskal Herrira. Europa osoan gertatzen ari zen bezala, Euskal Herrian ere feudal izatetik burges izatera pasatzen ari zen gizartea. Ordura arteko nekazaritzaz gainera, arrantza, burdingintza eta ontzigintza indartu ziren eta horiei esker komertzioa hedatu zen Euskal Herriko herrialdeetan.

Politika

XVI. mendea monarkien mendea da Europan. Mende horretan sortu ziren mendebaldeko estatu handiak: Espainia, Frantzia, Ingalaterra eta abar. Euskal Herriari dagokionez, Nafarroa, ordu arte aske zena, Fernando Katolikoak inbaditu eta Espainiako koroarekin batu zuen.

Kultura

Errenazimentuaren jomuga gizakia bera zen. Erdi Aroko ekarpen ilunak ahaztu eta Grezia eta Erroma klasikoek eskaintzen zieten kulturari begira jarri ziren autoreak. Bestalde, inprenta sortu berriak asko lagundu zion ideia eta estetika berrien zabalkuntzari.

Euskara

Garai hartako Euskal Herrian gehienak elebakarrak baziren ere, gizarteko goi-mailakoek erromantzez mintzatzen ziren. Euskal literatura idatzari dagokionez, Errenazimentuan egin ziren lehen urratsak. Bernart Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* izan zen orotan lehena, liburu hori izan zen euskal literaturaren abiapuntua. Inprentaz baliatuz Europako beste edozein hizkuntza bezain kultur hizkuntza bilakarazi nahi izan zuen euskara Etxeparek.

Erljioa

Luterok sorturiko Erreforma bitan banatu zuen Eliza katolikoa. Eliza barruan sortu ziren kritikak aztertzeko Trentoko Kontzilioa egin zen 1545etik 1562ra. Kontzilio hark eragin handia izan zuen Europako kulturaren eta, bidenabar, gurean: gizarte elebakarra kristautzeko euskaraz idazten hasi ziren. Nafarroako erreginak berak, protestantismoa onartu zuenean, Biblia euskarara itzultzeko agindu zuen. Lan horren ardura Joanes Leizarraga Eliza Erreformatuko apaiz lapurtarrari eskaini zion. Itzulpenaren arrakasta ikusita Erreformaren kontrakoek ere erlijio testuak itzultzeari ekin zioten.

BERNART ETXEPARE **Sarrasketa -XV. mende amaiera-**

1545ean Bordelen kaleratu zuen bere liburu bakarra eta euskaraz egindako lehena:
Lingua Vascomum Primitiae (Euskaldunen Hizkuntzaren Hastapenak).

Irudi zait emaztea dela gauza ezia
Donario guzietan guziz gauza emea
Gauzez eta egunez ere badu plazer handia
Harzaz gaizki erraitea bilania handia.

EMAZTEEN FABORE

Linguae Vascomum Primitiae liburuak hamabost poema ditu, zein baino zein ederragoak. Bi gai ukitzen ditu Etxeparek, nagusiki: erlijioa, bi poematan eta maitasuna hamar poematan. Bildumaren azken aldera beste hiru poema dakartza: autobiografikoa bata: "Mosen Bernat Etxepareren kantua", eta euskararen laudoriozkoak beste biak: "Kontrapas" eta "Sautrela"

Munduan den gizon orok behar luke pentsatu
laungoikoak nola duen batera formatu
Bere irudi propiora gure arima kreatu
Memoriaz, borondatez, adimenduz, hornitu.

DOKTRINA KRISTIANA

Andre eder jentil batek bihotza deraut ebatzi
Harzaz oroit nadinean deus ere ezin irentsi
Nik hura nola nahi nuke hark banenza onetsi
Ezin menturatuz nago beldur dakion gaizki.

AMOROS SEKRETUKI DENA

Kritiko batzuen ustez Erdi Aroko egiletzat jo liteke Etxepare, Jainkoa eta giza amodioa nahastea garai hari dagokiola eta. Beste askok, ordea, Etxeparek bere idatzietan bere burua aipatzeko duen joera eta aurrerapenean jartzen duen fedea ezaugarri aski modernoak direla diote Etxepare Errenazimentuko idazletzat hartzeko.

Iainkoak emaztea maite mundu oroz gainetik
Zerutik jaitsi zedin harzaz amaturik
Emazteak ezarri du gure anaieturik
Andre oro laudatzeko haren amoreagatik.

EMAZTEEN FABORE

Etxepareren bertso-taxukera eta gaien erabilera herrikoiak dira erabat.
Olerki gehienak hamabost silabakoak dira. Lerro bakoitzean hiru haustura garbi egiten ditu:

MOSEN BERNAT ETXEPAREREN KANTUA

Mossen Bernart jakin bahu gauza nola egingen zen
Bearnora gabetarik egon ahal hintzaden.

Heldu behar duen gauzan ezta eskapatzerik
Nik ogenik eznuela ongi egitez bertzerik
Bidegabeak haritu nau bide ez nuen lekutik
Erregeri gaizki saldu gertuz ogen gaberik.

Jaun erregek mezu nezan joanen ginen bertarik
Gaitzez nengola entzun nuen baina nik ez ogenik
Izterbegiek eneien malizian lekurik
Joan nedin enagien ogen gabe ihesik.

Ni gaixoa etsaiari nihaur giniz eskura
Ene untsa eginak ere orain oro gaitz dira
Haren menean ez banengo nik nukeen zuzena
Mirakulu banagi ere orain ene ogena.

Mossen Bernart pentsa ezak karzel hori gaitz bada
Nonbait ere infernua are gaitzago dela
Hemen hik ba duk baina haiek ez nork kontsola
Penak hemen fin dik sarri haienak ez sekula.

Libertatia nola baita gauzetako hobena
Gatibutan egotea hala pena gaitzena
Ni bezala ez dadila otoi inor engaina
Ezta ere hitz orotan fida ere guizona
Jaungoicoa zuk begira niri ere zuzena.

Amen.

POTAREN GALDACIA

(musua eskatzea)

-Andria jainkoak drugazula orain berdin gerade
Ni erregue baldin banintz erregina zinate
Pot bat otoi egidazu ezaizula herabe
Nik zugatik dudan penek hura merezi dute.

-Ea, horratx, aparta hadi, nor uste duk naizela?
Horrelako bat eztuk uste nik ikusi dudala
Horrelako hitz gaiztorik niri eztarradala
Bertzeek erran al baitiza enuk uste duana

Andre gaixtoa bazinade nik eznaidi konturik
Zaren zarena baizara zutaz pena ditut nik
Ene ustean eztut erran desonesta den gauzarik
Pot bat niri eginagatik etzinduke laidorik,

Hire potak baziakiat bertze gauza nahi dik
Anderia azti zira nihaurk erran gaberik
Bada utzi albainezak ni holakoz isilik
Horreyn gayz ciraden guero eguinen dut verceric.

Bizi naizen egunetan bada ez ditut utziren
Nik zer orain nahi baitut hemen duzu egingen
Uste diat eskuarki ez haizela burlatzen
Guizon hunek orain nuaia hemen laidoz beteren
Eiagora nik zer daidit zaude isilik hanbaten

Etai lelo ribai lelo pota franko bertzea bego
Andria mintza albaizinde bertze aldian emiago.

SAUTRELA

Euscara da kampa, eta goazen oro dantzara

O euscara lauda ezak garaziko herria
Zeren handik uken baiduk behar duian thornuia
Lehenago hi baitintzan lengoajetan azkena
Orain aldiz izanen haiz orotako lehena.

Euscaldunak mundu orotan preziatu ziraden
Baina haien lengoajeaz bertze oro burlatzen
Zeren ezein eskrituran erideiten ezpaitzen
Orain dute ikasiren nola gauza ona zen.

Euskaldun den guizon orok altza beza burua
Ezi huien lengoajea izanen da floria
Printze eta jaun handiek orok haren galdia
Scribatuz ahal balute ikasteko desira.

Desir hura konplitu du garaziko naturak
Eta haren adiskide orain bordelen denak
Lehen imprimizailea euskararen hura da
Basko oro obligatu jagoitiko zargana.

Eta lelori bailelo leloa zarai leloa
Euscara da kampa eta goazen oro dantzara.

KONTRAPAS

Euscara jalgi hadi kanpora

Euskara

Garaziko herria
Benedika dadila
Euskarari eman dio
Behar duen tornuia.

Baskoak orok preziatzen
Euskara ez jakin arren
Orok ikasiren dute
Orain zer den euscara.

Euscara. Jalgi hadi plazara

Euskara

Bertze jendek uste zuten
Ezin escriba zaiteien
Orain dute frogatu
Engainatu zirela.

Oraindano egon bahaiz
Imprimatu gaberik
Hi engoitik ibiliren
Mundu guztietarik.

Euskara. Jalgi hadi mundura

Euskara

Lengoajetan ohi intzan
Estimatze gutxitan
Orain, aldiz, hik behar duk
Ohorea orotan.

Ezein ere lengoajerik
Ez frantsesa ez bertzerik
Orain ezta erideiten
Euskararen pareric.

Euskara. Habi mundu guztira

Heuscara. Jalgi adi dançara.

Bertzeak orok izan dira
Bere goien gradora
Orain hura iganen da
Bertze ororen gainera.

Ezein ere lengoajerik
Ez frantsesa ez bertzerik,
Orain ezta erideiten
Euskararen pareric.

Euskara, Irten hadi dantzara!

Etxepareren olerki bat irakurri dut

Hazlearen izen-abizenak

Olerkiaren izena:.....

Hitz hauek ez ditut ulertu:.....

Olerkia jasotzen duen liburuaren gai nagusia:.....

Irakurritako olerkiaren gaia:.....

Olerkian agertzen diren irudi
poetikoak:.....

-----*Testua klasekideen aurrean errezitatu*-----

Errenazimentuaren ezaugarriei buruzko laburpena.
Zertan islatzen da Errenazimentua Etxepareren olerkietan?

Gaurko olerkigintzan ba al du islarik Errenazimentuak?

EUSKAL POESIAREN HASTAPENAK

Kapitulua

- 1.- **DEKORAZIO OLERKIAK /KOPLA ZAHARRAK**
- 2.- **EUSKAL BALADA**
- 3.- **PASTORALA**
- 4.- **ERRENAZIMENTUA**
- 5.- **BARROKOA**
- 6.- **KLASIZISMOA**
- 7.- **NEOKLASIZISMOA**

Lehenengo bi kapituluak ahozko literaturarekin lotura estu-estua daukate.

Hirugarrenak, ahozko literaturaren garaiko egitura izan arren gaurko pastoralak bere idazlea izaten duenez, ahozkoaren eta idatziaren artean kokatu dugu.

Hurrengo lau kapituluak euren egile ezagunak daukate. Gutxi izan arren korrante literario bakoitzeko bat edo bi aurkeztu ditugu.

Ekoizlea



Banatzaillea



Getaria, 18 - behea
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608

artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

LG: VI - 04 / 05

Ikasmaterial honek
Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du.

2005 / 02 / 14